

Jardunaldiak egiten ari dira HUHEZIn, Skills nazioarteko programaren inguruan

2009/09/21

Irailaren 21etik 25era bitartean Skills Kooperatiba Ikasketak programaren jardunaldiak egingo dira HUHEZIn, Lanki ikertegiak antolatuta. **Europako Batzordeak** diruz laguntzen du Skills egitasmoa, Lifelong Learning eta Leonardo da Vinci egitasmoen bidez, eta beronek **helburua du edukiak eta ikasketa sistema berritzaleak sortzea, kooperatibistak prestatzeko**, berauek jantziagoak eta eraginkorragoak izan daitezzen.



Partaideak

Oraingo honetan 15 lagun etorri dira jardunaldi hauetan parte hartzeko, herrialde hauetatik: Suedia, Finlandia, Italia, Turkia eta Euskal Herria. Gehienek erakunde hauetan egiten dute lan:

- Federazione Trentina della Cooperazione (FTC). Italia.
- Coompanion Kooperativ Utveckling Skaraborg (KUS). Suedia.
- Swedish TelePedagogic Knowledge Center (STPKC). Suedia.
- Anadolu Bil Meslek Yuksek Okulu (ABPSHE). Turkia.
- Kemi-Tornion ammattikorkeakoulu (KTP). Finlandia.
- Lanki Lankidetzaren Ikertegia. Euskal Herria.

Proiektua abiatu zenetik, jardunaldiak egin dira Italian, Finlandian eta Suedian. Proiektuaren azken emaitzak 2009 urtearen amaierarako espero dira.

